

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko apirilaren 26a



Kobazuloetako seme-alabak

■ Kobazuloetako seme-alaba anitz dago Nafarroako Erriberan. Harpeari betiko agur esan zioten horietako batzuek, hala nahi zutelako. Beste batzuek, halabeharrez, Francoren aginduz asko eta asko lehertarazi egin zituztelako. Badira kobazuloa utzi ondoren bertara itzuli direnak. Betiko. Gainontzekoek, noizbehinka —uda ga-

raian— berritzen dituzte haurtzaro eta gazte garaian bertan eskuratutako bizipenak. Valtierran Urmeneta familiako kideak ditugu kobazuloan jaioak. Orduko garaiak pozik gogoratzen dituzte. Dirua ez zegoen soberan, baina bai, ordea, zoriontasuna. Kobazuloen duintasuna aldarrikatu dute datozen orrietan. ■

Metropoli forala

FELIPE RIUS



Egun batez animatuago daude liburudendak, ez tabernak edo hiperrak arratsaldeko zazpitan bezain beteta, baina bai normalean baino jende gehiagorekin. Adiskide batez oroitu naiz nobedadeen artean begiratzen ari nintzela: Borges-en liburutegi erraldoiekin amets egiten zuen eta orduak ematen zituen irakurtzen; dena gutxi iruditzen zitzaion, ordea. Obsesionaturik zegoen, uste zuen liburu perfektoa aurkitu aurretik hilko zela eta horrek loa galarazten zion. Azkenean erabaki bat hartu zuen: jende gehiena egun bakar batez gogoratzen bazen liburuez, berak alderantziz egingo zuen, egun bakar batez besterik ez zen aterako kalerara, Liburuaren Egunean hain zuzen, lagunak ikusteko eta urtean zehar hartu gabe utzitako pote guztiak edateko. Ederki prestatu zuen dena: diru

Liburuaren Eguna

behar handirik ez zuen, bere gurasoek hilabetero kopuru bat pasatzen baitzioten bankutik, beheko dendatik igotzen zizkieten behar zituen jaki eskasak eta liburudendakoek sobre handi batzuetan bidaltzen zizkieten eskatzen zituen liburuak. Ateratzen zen egunean, Liburuaren Egunean, koadrilako guztiok harriturik begiratzen genion hasieran, «hi burutik jota hago, nola bizi haiteke neskari gabe, lagunik gabe, sexurik gabe, deus ere gabe?, galdetzen genion, baina berak oso serio erantzuten zuen: «Liburuetan dena dago, eta ez dut besterik behar». Neri Paul Auster-en *Fantasmak* istorioko pertsonaia bakartia zetorkidan burura ikusten nuen bakoitzean, baina Liburuaren Eguna Parrandaren Eguna ere bazenez bosgarren whisky-rako ez genion besterik galdetzen eta lasai uzten ge-

nuen urte guztian libre zuen egun bakarrean. Goiz batean bere etxera joan nintzen bisita bat egitera, baina ez zidan atea ere ireki. «Joan hadi, badakik ez zaidala gustatzen Liburuaren Egunean ez bada inor ikustea, irakurtzeko denbora behar diat». Triste samar geratu nintzen, txikitatik oso lagun onak baikin, eta ospa egin nuen. Iaz gertatu zen, Liburuaren Eguna pasatu ondoren.

Geroztik ez dugu haren berririk izan. Aste honetan ospatu den Liburuaren Egunean bere zain geunden denok, baina ez zen azaldu. Ez naiz ausartzen bere etxera joaten. Beharbada hilik dago bere liburu guztien artean, edo Interneten sartu da eta orain Liburuaren Egunean ere ez du ateratzeko astirik. Zeinek daki. Okerrena da ez dugula inoiz literaturaz hitz egin. X

KONTZERTUAK

Iruñea: Roberto Molerok kontzertua eskainiko du gaur Reverendos dantzalekuan, gaueko 10.00etatik aurrera.

Gares: Funda-Mental aretoan Celtas Cortos taldeak bere disko berria aurkeztuko du datorren ostegunean, gaueko 11.00etatik aurrera. Sarrerak 1.500 pezetan izanen dira salgai.

Larrion: La Banda sin Nombre taldeak kontzertua eskainiko du bihar, gaueko 11.30etatik aurrera, herriko ostatuan.

ZINEMA

Iruñea: Olite zineman *Sed de mal* pelikula eskainiko dute datorren asteartean Zinema Beltzaren zikloaren barruan, arratsaldeko 8.00etan.

ANTZERKIA

Urrotz: Markeliñe taldeak *Armagedon* obra taularatuko du bihar, gaueko 9.00etan pilotalekuan, Udaberriko biraren barruan.

Tafalla: Trokolo taldeak *Libroticos* antzeztuko du gaur, Kultur Etxean arratsaldeko 8.00etan.

ERAKUSKETAK

Iruñea: Nafarroako Aurrezki Kutxako Carlos III aretoan Juan Carlos Roman-en obra ikus daiteke igandera bitartean.

Corella: Kultur Etxean Lupe Martinezen lore konposizioak dira ikusgai. Lore prentsatuak aurkezten ditu Martinezek bere erakusketa honetan. Zabalik izanen da datorren astelehenetik maiatzaren 10era bitartean.

Zangoza: Udal Kultur Aretuan Itziar Alforjaren lan grafikoak daude ikusgai igandera bitartean. Lanegunetan 19.00etatik 21.00etara dago zabalik, eta jaiegunetan 12.00etatik 14.00etara.

Elizondo: Juan Carlos Olaetxea margolariaren lanak Arizkune Kultur Etxean dira ikusgai maiatzaren 3ra bitartean. Lanegunetan dago zabalik, arratsaldeko 19.00etatik 21.00etara bitarte.

IBILALDIAK

Iruñea: Nafarroa Kirol Elkarteak Nazar eta Santa Kurutze Kanpezu bitarteko ibilaldia antolatu du iganderako. Parte hartu nahi duenak egoitza bertan eman behar du izena, edo 22 98 20 telefonora deituta.

BERTSO SAIOAK

Iruñea: Txantrea auzoan bertso afaria egingen dute datorren ostiralean, bertako igeritokitian, gaueko 9.30etatik aurrera. Bertan izanen dira Manolo Arozena eta Bittor Elizagoien bertsolariak. Txartelak 2.000 pezetan dira salgai Txorimalo eta Ziripot tabernetan.

nafar kronika

Alberto Barandiaran

Errespetu falta

Hamar partidutik bederatzi irabaziko lizkioke Belokik Eugiri, edo hamarrak. Azken garai honetan maiz entzun izan dut esaldia. Bada, lautik bitan gailendu da agoizkoa: % 50. Ez dut ulertzen zertara datorren burlatarraren zalantzan jarri ezineko nagusitasunarena. Bitan gutxinekin egin du huts —huts galantak, gainera, dena zuelako alde—, eta bitan askoren ustez berarekin lehia daitekeen bakarrarekin, Eugirekin hain zuzen ere. Eta, hala ere, Belokik galdu dituen bi partidu horietan ez du zerikusirik izan agoizkoaren jokoak: batean zola bustirik zegoela, bestean zola idoregi zegoela.

Arrazoi du Eugik minduta dagoela esatean. Errespetu falta ikaragarria da berekiko, egoera bera zelako bientzako. Beloki ez dela moldatu bestea bezain ongi? Bada, horrek esan nahi du ez dela mundu guztiak esaten duen bezain pilotari fina. Konparazioak gaiztoak dira beti, baina Retegiri gutxitan entzun zaizkio kexuak jokoaz kanpoko zerbaitengatik, eta kexu horiek baliagarriak zitzaizkion irabazteko gogo eta grina are handiagoa izateko.

Ogetako partiduen ondotik entzundakoak lotsagarriak iruditu zaizkit: galtzen ez dakitenak, batzuk; kontrarioarekiko errespetu falta, beste batzuek. Horrek ez dio mesederik egin burlatarrari.



asteko pertsonaiak



Mari Abrego
Mendizalea

■ Mari Abrego mendizale nafarra Ipar Amerikako tontorrik altuena den McKinley mendira igoko da maiatzaren. Beste zazpi mendizalerekin batera abiatuko da Alaskara Mari Abrego, datorren hilaren 15ean. McKinley mendi ezaguna bigarren aldiz igotzen saiatuko da mendigoizale nafarra. 1982. urtean izan zen han Abrego lehenengo aldiz, Martin Zabaleta mendizalearekin batera. Orduan 40 egun eman zituzten Alaskan. Oraingoan ere hilabeteko bidaia prestatu dute Abregok eta beste zazpi mendizaleek. McKinleyra ailegatuta ekaitza harrapatzea da Mari Abregoren kezka bakarra.



Lluís Llach
Abeslaria

■ Priorat eskualdeko Porrera herriari eginiko omenaldi gisa konposatu duen bere azken diskoa aurkeztu zuen Lluís Llach kantautore kataluniarrek asteazkenean Iruñeko Gaiarre antzokian, arratsaldeko zortzietan. Miquel Martí Pol poetarekin elkarlanean egin du Porrera izeneko azken lan hau, eta aro berria zabaldu du artistaren diskografia zabalean, betiko inspirazioa izan duen Gironako iparraldeko lurralde berde eta lasaia utzi duelako Tarragonako alderdi malkartsu eta zailak hartzeko. *Un pont de mar blava* aurreko lanarekin loturarik badu, hala ere, azken honek: Martí Polenak berarenak ziren hartan ere kantuen hitzak.

ahaztu gabe!



LEHIAKETA

Lizarra: Lokiz Argazki Elkarteak antolatuta, argazki rallya egingen dute igandean herrian barrena. Partehartzaile bakoitzak mila pezeta ordaindu beharko ditu, eta horren truke erroiluak eskuratu eta argazkiak errebelatu ahal izanen ditu. Izena emateko epea igandean bertan goizeko bederatzi eta erdietan hasiko da, hamarrak arte. Fray Diego Kultur Etxean. Rallyko kontrola, berriz, arratsaldeko ordu bietan itxiko da Gustavo Maeztu museoa.

Partehartzaileek hamar proba egin beharko dituzte, eta horietan Lizarrako jende, leku eta eraikinen argazkiak atera beharko dituzte. Bilduma izeneko saria eskuratu nahi duenak proba guztiak egin beharko ditu. Bildumarik onena egiten duenak 12.000 pezetako saria jasoko du. Halaber, gai bakoitzeko argazkirik onena egiten duenak argazki materiala jasoko du. Sari banaketa maiatzaren 17an egingen dute Lizarrako kultur etxean, arratsaldeko zazpitan. Aurretik argazki rallyan ateratako argazkiak erakutsiko dituzte.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gainetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Iruñea

Barañain

*

Txantreako jaiak datorren astean

Auzoko Jai Batzordeak antolatuta, ekitaldi ugari izanen da asteartetik igandera bitartean

Txantrea auzoko Jai Batzordeak antolatuta, auzoko bestak ospatuko dituzte datorren asteartean hasi eta igandera bitartean. Ekitaldi ugari antolatu dituzte datozen egunetarako auzoko hainbat gazte eta taldek: antzerkia, kirola, lehiaketak, dantzaldiak, kontzertuak eta beste hainbat ikuskitun.

Erredakzioa / Iruñea

JAI BATZORDEAK antolatuta, datorren asteartea eta igandea bitartean auzoko jaiak ospatuko dituzte Txantrean, urtero bezala. Astearte arratsalderako prestatu dituzte lehen ekitaldiak. Haste-ko, kometak heganarazten auzokideek duten trebezia erakusteko lehiaketa antolatu dute, arratsaldeko 5.00etatik 6.00etara. Ondoren, auzoko kaleak zeharkatuko ditu kalejirak. Haurrentzako jolas ugari izanen da arratsaldeko 6.00etatik aurrera Felix enparantzan San Crisobal gazte taldearen eskutik.

Gau partean herri afaria egingen dute Auzotegin Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatuta. Txartelak Txorimalo eta Herriko tabernan dira salgai. Afaldu ondoren eta goizaldera arte dantzaldia izanen da Felix enparantzan.

Asteazkenean goizean goiz hasiko da jaiak, goizeko 9.00etan dianak ariko baitira kaleetan. Ondoren kirolak izanen du txoko berezia. 9.00etatik aurrera ere,



Etsaiak taldeak kontzertua eskainiko du txosnetan, ostegun gaueko 9etan.

JAVIER IZQUIERDO

futbitoan ariko dira auzoko gazteak hamabi orduz. 10.00etan, berriz, txirindularitza lehiaketa. Herri kirolak ikusteko aukera ere izanen dute auzokideek, arratsaldeko 6.00etan.

Arratsalde partean musika eta dantza izanen dira nagusi. Haste-ko, arratsaldeko 7.30etan Duguna dantza taldeak bere ikuskizuna aurkeztuko du. Ondoren, 8.30etan, txistu eta gaita kontzertua izanen da. Ordu berean, Rastro plazan, Los Morotxos taldeak tango ikuskizuna aurkeztuko du.

Ostegunean ere izanen da zer egin Txantrean. Eguneko ekital-

dien artean gaueko 9.00etatik aurrera egingen duten rock jaialdia da aipatzekoa. Etsaiak taldeak eskainiko du Txantreako txosnetan kontzertua.

Ostiralean, arratsaldeko 6.00etan antzerkiak izanen du Txantreako jailetan txokoa. Gus txotxongilo taldeak *La princesa de fresa* obra taularatuko du Auzotegi Kultur Etxean. Gau partean musika izanen da nagusi berriro ere. 11.00etan Ekliptse taldearen eskutik dantzaldia izanen da Corella etorbidean. Ordu erdi geroago Txantrea orkestrak alaituko du Felix enparantzako giroa. Larunbateko

gaua ere talde bi hauek alaituko dute. Goizaldeko 4.00etarako, gainera, ezusteko ekitaldia prestatu dute antolatzaileek.

Auzoko jaiak amaitzeko, goizeko 11.00etan erraldoien konpartsa ibiliko da igandean karriketan barrena. Ordu bi eta erdietan, berriz, kalderete lehiaketa egingen dute eta arratsaldeko 7.00etan, besteak beste, Iruñia dantza taldeak bere ikuskizuna aurkeztuko du. Arratsaldeko 8.00etan jazz kontzertua eskainiko du Andoni Rios Jazz Kuartet taldeak. Ordu berean, txistu eta gaita dantzaldia izanen da Felix enparantzan. X

Lekunberri

Aralarko Ibilaldia egingen dute maiatzean laugarrenez

Parte hartu nahi duten mendizaleek maiatzaren lehena baino lehen eman behar dute izena

Erredakzioa / Iruñea

NAFARROAKO mendizaleek badute pozik egoteko arrazoirik, azken hiru urteetan bezala, aurren ere Aralarko Ibilaldia antolatu baitu Lekunberriko Ttutture kirol elkarteak. Maiatzaren 12an egingen duten ibilaldiaren laugarren ekitaldi honetarako ohizko bidea berreskuratu dute antolatzaileek. Iaz ez bezala, beraz, Lekunberritik atera, eta, besteak beste, Irumugarrieta, Aldaon, Ganbo, Igaratza eta Aralarko bihotza zeharkatu ondoren Lekunberriera itzuliko dira mendizaleak.

Iaz, ibilbidea errazte aldera, Aldaon eta Ganbo —gailurrik gogorrenak— ez igotzea bazegoen baina gehienak bertatik igaro ziren. Hori dela eta, ibilbidea bere horretan uztea erabaki dute Ttutture elkarteak. Maiatzaren

12ko ibilaldian parte hartu nahi duenak maiatzaren lehenetik aurrera du izena emateko aukera.

Datorren maiatzaren 26an, Tolosako Aralarko Adixkideak elkarteak antolatuta, Hamalau Orduko Ibilaldia egingen dute. Horren aurretik bertara joan nahi duten mendizaleentzat Lekunberrikoa lagungarri izatea nahi dute Ttutture kirol elkarteak.

Partehartzaileak goizeko seietan jarriko dira bidean. Herriko plazatik aterako dira, talde bakoitzaren artean hiru minutuko tarteak utziz.

Bidea behar bezala seinalatuko dute Ttutture kirol elkarteak kideek eta kontrolak jarriko dituzte Unako Putzuan, Igaratzen, Albin eta San Miguelen. Kontrol horietan, halaber, fruta, ura, zukua, salda eta kafea eskuratu

ahal izanen dute partehartzaleek.

Ttutture Kirol Elkarteak antolatuta maiatzaren 12an egingo

den ibilaldian parte hartzeko, aipatu bezala, maiatzaren bata baino lehen eman beharra dago izena. X

Udalekuak antolatu ditu Udalak euskaraz eta erdaraz

Parte hartu nahi duten haurrek izena emateko epea zabalik dute dagoeneko

Erredakzioa / Iruñea

BARAÑAINGO UDALAK, azken urteetan bezala, herriko haurrentzat udalekuak antolatu ditu aurren ere. Udalaren udaleku hauetan parte hartu nahi duten haurrek zabalik dute jada izena emateko epea. Udalekuak euskaraz eta erdaraz antolatu ditu Barañaingo Udalak.

Euskarazko udalekuei dago kienez, hain zuzen, uztailaren ibiltariak izanen dira eta Baztan bailarako hainbat herritan izanen dira partehartzaileak. Hilaren 16 eta 22a bitartean izanen dira. Udalekuan parte hartu ahal izateko hamahiru eta hamazazpi urte bitarte izan beharko dute gazteek.

Abuztuan, berriz, Zestoako Baserri Eskolan izanen da udalekua.

Bi txanda egingen dituzte, lehenengoa uztailaren 31tik abuztuaren 9ra, zortzi eta hamaika urte bitarteko haurrentzat, eta abuztuaren 20tik 29ra, hamaika eta hamalau urte bitarteko gazte txoentzat.

Erdarazko udalekuei dago kienez, Berara joanen dira Barañaingo haurrak, uztailaren 6tik 12ra, 13tik 19ra eta 20tik 26ra. Zortzi eta hamaika urte bitarteko haurrek izanen dute Berara joateko aukera.

Bestetik, igeri egiten daiten gaztetxoek —11 eta 14 urte bitartekoek— Esara joateko aukera izanen dute uztailaren 15etik 21era. Hamahiru eta hamazazpi urte bitarteko gaztetxoak, berriz, Baztanera joanen dira uztailaren 23tik 29ra.

Abuztuan, berriz, Zestoako Baserri Eskolan egingen dituzte udalekuak Barañaingo haurrek, eta bertara joateko aukera izanen dute zortzi eta hamahiru urte bitarteko haurrek, hilaren 10etik 19ra bitartean. X

IRUBIDE ANTZERKI TAILERRA

"MUJERES"

Aristofanes-en komediaren egokitzaipena

Arratsaldeko 8etan - Nafarroako Antzerki Eskolan
Igandea 28 - IRUÑEA

Mendiak emaniko nafarrak

Valtierrako kobazulo batean jaioa den Urmeneta familiak bertako bizimoduaren berri eman digu

Erriberako herrietan —baita Euskal Herriko eta ondoko beste herrialdeetan ere— pobreen etxeak izan dira mendian pikotxez egindako kobazuloak. Egun ere, zutik dira horietako asko, eta bada oraindik, noizbehinka baino ez bada ere, bertan bizi den jendea. Urmeneta familia Valtierrako kobazulo batean jaiotako familia da. Kobazuloetako bizimoduaz mintzatu dira gurekin.

Edurne Elizondo / Valtierra

ERRIBERAKO gainontzeko herrietako mendiak bezala, Valtierrakoa ere ehundaka familiaren bizileku izan da urteetan zehar. Etxebizitza erosteko adina diru ez zegoenean, pikotxa eskuetan hartu eta mendia zulatzea zen asko eta askoren aukera bakarra. Valtierrakoa, Erribera osoko mendiak bezala, zulo handia da, barrutik hutsik dagoen mendia.

Erriberan, egun, bada oraindik mendiari lurra kenduz egindako kobetan bizi den jenderik, nahiz eta gutxi izan. Valtierran bertan ere, udako hilabeteak kobazuloetan ematen dituzte bertan jaiotako askok. Eguzki izpiak saihesteko ez omen dago hoberik. Valtierrako mendiak emaniko familia da Urmenetarrek osatzen dutena. Bertan jaioak dira Agustín Urmeneta eta Josefina bere emaztearen bederatzi seme-alabak. Honorio, Consuelo eta Mercedes dira horietako hiru.

Agustín Urmenetak mende honen hasieran egin zuen bere familiaren bizileku izan den kobazuloa, eskuz. Atea, pasabidea, sukaldea, egongela, hiru logela eta abereentzako ukuilua. «Zenbat ordu pikotxa eskuan, zenbat lurra atera behar!». Honorio Urmenetak ongi ezagutzen du bere aita egindako lana, koskortu orduko berak ere egin behar izan baitzuen.

Joan den udaz geroztik itxita zegoen Honorio orain zabaldu duen atea. Agustín Urmenetaren alaba zaharrenak, Catalinak, jaso zuen herentzian aita egindako etxea, eta eguzkiko hilabeteak berekin ematen ditu bertan. Atea igaro bezain pronto, txikitako oroitzapenak arrapaldan itzultzen dira Honorioaren burura. Consuelo eta Mercedes arrebeekin batera, ordukoak egungoak dira berriro ere, sikiera egun batez, Honorioarentzat.

«Askotan gogoratzen ditut kobazuloko garaiak» • «Ez genuen dirurik baina pozik bizi ginen, oso pozik, eta ez genuen inoiz jatekoaren falta gogoratzen du Consuelok, harro; lan eta lan eman zuen bere bizitza osoa gure



Azken urteetan agerian geratu dira hainbat kobazulotako gelak.

XABI VENTURA



Urmeneta familiako kideak kobazuloaren sarreran. Ezkerretik hasita, Consuelo, Honorio, Mercedes eta bere senarra.

XABI VENTURA

Mercedes Urmeneta:
«Estatua gutaz lotsatu
egiten zen. Untxiak bezala
bizi ginela uste zuten»

aita zenak, mendian, soroan, behar zen lekuan. Pobreak ginen baina bi zerri hiltzen genituen urtero».

Consuelorentzat, zalantzarik

gabe, urte onak izan ziren kobazuloan emandakoak. «Askotan gogoratzen ditut ordukoak», dio, neba eta ahizpa sukaldean aurrean dituela. Egungo sukaldea, hala ere, ez da ordukoa; kobazuloa, finean, ez da ordukoa. Pixkanaka-pixkanaka, gizartearen oro har izan diren aurrerakuntza eta berrikuntzak kobazuloan ere gertatu dira. Kobazuloa baino, etxebizitza arrunta dirudi Agustín Urmenetak orain 90 urte inguru eskuz egin zuen zuloak.

Sukaldea, hozkailua, garbigailua. «Gure garaian ez zegoen horrelakorik».

«Argia 1961. urtean jarri zuten Valtierran», Mercedesen hitzak dira. Hasierako urteetan bonbilako ordaitzen zuten. «Askotan, hala ere, nahiz eta argia izan, hain gutxi ikusten zen kriselkuak ere piztu behar izaten genituela. Argia Moncayotik ekartzen zuten hasieran Honorio aipatzen duenez, baina kompetentzia sortu zen gero. «Carcaretik ekartzen

Consuelo Urmeneta: «Ez genuen dirurik baina pozik bizi ginen eta zer jana ez genuen inoiz falta»

hasi ziren eta orduan asko hobetu zen argiaren egoera».

Urak ere hamaika bide egin izan ditu Valtierrako kobazuloetara iritsi aurretik. Consuelok irribarretsu gogoratzen ditu ur tinak buruan eramaten zituzteneko garaiak. Kobazuloko txokoetan oraindik zutik dira tina horietako asko. Ordaintzeko adina sos zutenean, ura erosi egiten zuten. «Izotza genuenean ere, tinetan sartu eta lastoarekin tapatzen genuen, ez urtzeko».

Mendia, kobazuloa bera arazo bilakatzen zen noizbehinka ere. Honorio, hala ere, ez du inolako istripu larririk gogoratzen. Mendiko lurra, baina, mugitu egiten zen noizean behin. «Casimirota-rren kobazuloko zati bat behera etorri zen behin, baina lurrak ez zuen inor harrapatu». Gogoratzen duenez, beste behin Valtierrako bertako familia baten behiak orroaka aritu ziren egun osoan. «Ez genekien zer gertatzen zitzaien baina egun hartan bertan lur puska bat erori zen kobazuloaren barrunean».

Valtierrako kobazuloan pozik bizi baziren ere, gogor egin behar izan zuten lan Urmeneta familiako kide guztiek. «Lanean noiz

Bizitza Erriberako kobazuloetan

Honorio Urmeneta:

«Herriko jendeak baztertu egiten gintuen kobazuloetan bizi ginenok, pobreak ginelako»

hasi nintzen ere ez dut gogoratzen. Edozein gauza egiten genuen gizonok, egurra eta garia bildu, espartzua atera, edozein gauza. Emakumeak, berriz, zerbitzari ibiltzen ziren, baita gure etxeok ere», argitzen du Honorio. Denek ekarri behar zuten jatekoa etxera. Errentan hartutako baratza ere lagungarri izan zuten. «Aitak hazitako meloiak Eguberrietan ere jaten genituen askotan», dio Consuelok. Baratza ezezik, hazienda ere izan zuten Urmenetarrek, kobazuloan bertan. Gaur egun logelak daude garai batean abereak zituzten lekuan eta askak armairu bilakatu dira. Lana zela eta, kobazulotik landa ematen zituzten eguneko ordu gehienak etxeko gizonak, baina afalordua elkartzeko ordua zen. «Une politak» Honorioentzat.

Kobazulo asko lehertarazi zituzten Francoren garaian

• Erriberako mendietan egindako kobazuloetan herriko pobreenak bizi ziren, etxea erosteko dirurik ez zutenak. Gaur egun gauzak aldatu diren arren, beste garai batzuetan bizimodua ez zen batere erraza bertakoentzat. Bizimoduaren beraren gogortasuna ezezik, gainontzeko herritarren mesprezua ere jasan behar izaten zuten askotan. «Cueveroak deitzen gintuzten, gaizki begiratu eta baztertzeko gintuzten dirurik ez gendelako» azaltzen du Honorio. Kobazuloetako jendearen artean, ordea, ona zen harremana. «Edozein lekutan bezala haurrak elkarrekin ibiltzen ziren jostatzeko».

Espainiako gerra zibilaren etorrerak ez zituen gauzak erraztu. «12 urte nituen *movimiento*-a iritsi zenean» azaltzen du Honorio. Malkoek begietatik ihes egiten diote nahi gabe ordukoak gogoratuz. «Oso gaizki portatu zen eskuina hemen. Nire aita herritik bidali zuten eta lur partzelak kendu zizkieten. Nire ama eta arreba zaharrenari, berriz, ilea moztu zieten». Agustín Urmekak frontera alde egin zuen orduan eta gerra amaituta itzuli zen Valtierra bere kobazulora. «Oso gogorra izan zen berarentzat herritik alde egin behar izatea. Bere eskuz egindako etxea uztera behartu zuten».

Erriberako kobazuloetako biztanleentzat, baina, gerra amaituta iritsi zen bizi izan duten garairik txarrenetarikoa. Izan ere, Francoren garaian *etxe merkeak* egin zituzten beraientzat, kobazuloa utz zezaten. Kobazuloa utziz gero, bertara itzul ez zitezen horietako asko eta asko lehertarazi zituzten. Honorio gogoratzen duenez, eztanda izan zen Kaparrosa, Ablitas eta Milagroko kobazulo askoren patua. Valtieran, ordea, ez zen horrelakorik gertatu, «alkatea aurka



Consuelo Urmeneta kobazuloko sukaldean eta gurasoen logela izandakoan ageri da. Garai batean animalien aska zirenak armairu dira egun.



XABI VENTURA

Francoren garaian 'etxe merkeak' egin eta kobazulo asko lehertarazi zituzten

agertu baitzen. Berari esker zutik jarraitu zuten hemengo kobazulo guztiek». Valtierako kobazuloetan bizi zirenentzat, berrehun *etxe merke* inguru egin zituzten. Horietara bizitzera joan zirenek gordailu gisa erabili zituzten or-

duz geroztik kobazuloak.

«Estatua gutaz lotsatu egiten zen. Untxiak bezala bizi ginelako uste zuten eta horregatik lehertarazi nahi izan zituzten kobazuloak» azpimarratzen dute Consuelo eta Mercedesek, sa-

mintasunez. «Kobazulo batzuk besteak baino hobeak ziren baina baziren kobazuloak baino okerrago zeuden etxeak ere». Urmeneta familiako kideentzat, hain zuzen, benetako etxea izan da Valtierako kobazuloa eta bertan izan duten bizitzaren duintasuna aldarrikatu dute beti. Consuelok are gehiago dio: «Itzul daitezela lehengo garaia».

Urteak dira mendiak emaniko Urmenetarrek Valtierako kobazuloa utzi zutela. Consuelok ez-

kontzeko utzi zuen —«aitak berak eraman zituen nire gauza guztiak kobazulotik Kaparrosora» eta noizbehinka baino ez da itzultzen. Baina beti pozik. Mercedesek Gipuzkoarako bidea hartu zuen bere bi alabak Valtierako kobazuloan jaio ondoren. Azkoi-tian bizi da egun. Honorio kobazuloa utzi bazuen ere Valtieran jarraitzen du. Udako hilabeteetan, egun bakar batez bada ere, urtero topo egiten dute euren mendiko zulo maitatuan. X

Kobazuloetako bizimoduaz

iritzia

Patxi Zabaleta
Parlamentario eta idazlea



MENDE honen erdiraino, berrogeita hamarrek hamardaraino alegia, Euskal Herrian, ondoko beste herrialde batzuetan bezala, baziren kobazuloetan bizi ziren jendeak. Nafarroan lurpean sortu eta bizitakoak ehundaka dira oraindik.

1950. urtetik aurrera, ordea, debekatu egin zuten kobazuloetako bizietxeen izatea. Ondorioz *etxe merkeak* deitutako haiek eraiki zituzten Erriberako hainbat eta hainbat herritan eta *etxe merke* horien giltzak banatzen ziren egun berberetan dinamitz lehertzen zituzten kobazuloak.

Zergatik? Jendea ez zedin berriro bertara itzuli, hori baitzen egin zuten batzuren batzuk etxe berrietako giltzak eskuratu ondoren. Oraindik bizi da garai hartan Patronato Francisco Franco zelakoaren arduraduna zena, Fausto Perez Barragan jauna. Gizaseme honen aginduz eta bere ardurapean le-

hertu ziren dinamitz Nafarroako Erriberako azkeneko kobazuloak.

Mende honetan Nafarroako berrogeita hamar herri baino gehiagotan bizi izan da jendea lurpean. Jenderik pobreena zen, lurrik eta ondasunik gabea. Egunsentian herriko enparantzan ipintzen zena lur-jaberen batek lanerako hartuko ote zituen zain. Lur-lanetako peoiak ziren. Familiaren beraren izatea ere guztiz bestelakoa zen, taldekoa.

Baina beren txirotasunaz at, kobazuloetako biztanleek lurarekiko harreman berezia eta bitxia zuten. Lurra, ama-lurra ez zen haientzat uztia eta fruituak emaitza egiten dizkiguna bakarrik. Lurra, lur-ama babesa zen gainera, aterbea eta beren buruen gordailua.

Horregatik itzuli nahi izaten zuten kobazuloetara; horregatik oraindik ere bada Sesmako kobazulo batean jaioa izaki eta kobazulo berera zahartzaroan itzuli dena. Horregatik

jende pobre haietaz lurarekiko maitasunak eta atxikimenduak zentzu sakona zuen. Horregatik saiatu ziren hain bortizki komunalak defendatzen XIX. mendean eta XX. mendeko lehendabiziko erdian.

Jende pobre haiek, gainera, bigarren mailako jende haiek beste batzuen oroitza ere dakarkigute gogorra, jentilena. Ziur aski jentilak, bigarren mailako ordainpeko haiek herrietatik eta harresien babesetik bota eta jaurtiki egin zituzten kristautasuna herriez jabetu zen antzinako garai haletan. Horregatik jentilen bizilekuak kobazuloak ziren, harpeak. Ez baita gauza ezagunegia orain betidanikoak iruditzen zaizkigun baserriak eta baserriko bizimodu bera nahiko berriak direla; due-la hiru edo lau mendekoa baizik ez. Baina gaurkoan Erriberako kobazuloez ari gara, Erriberako ahaztutako eta baztertutako jende pobreen omenez... X

Patxi Zabaletak Erriberako kobazuloak aztergai izan ditu azken hilabeteetan. Badena dena da eleberririk jaso ditu bere ikerketan lortutako hainbat emaitza. Kobazuloetako bizimoduari buruz inkesta etnografikoa egin du bertan bizi izan den jendearekin.

Xanti Begiristain

Eskandalu larriak

■ Apirilaren 22an Nafarroako Parlamentuak eskubiderik gabe utzi ditu Ezker Abertzalea taldeko partaideak hogeitaz egunerako, UPN, PSN, CDN eta EAKo ordezkarien laguntzarekin, eta gainera aho batez, gehienok oso ongi dakigun bezala. Dirudenez, gaur egun, argazki batzuk Parlamentuan jartzeak istilu larriak sortzen ditu, zeren eta hori baita hain zuzen ere Ezker Abertzalea taldekoei Parlamentuko Mahaia leporatu diena, alegia, *istilu larriak*.

Nafar asko gara lekukoak, nola behin baino gehiagotan aterarazi dituzten HBko parlamentarioak bultzaka eta arrastaka foruzainek, Parlamentuaren agindupean.

Hor nahitanahiez zerbait arraroa gertatzen da; kontraesanak sumatzen dira. Alde batetik esaten dute, eta sinestarazi nahi digute, hemen egiazko demokrazia dugula eta Nafarroako Parlamentua benetan serioa dela, baina begira ezazue zer-nolako bitxiak gertatzen diren maiz: Parlamentuan batzuetan ez diete uzten parlamentatzen, nafarren hizkuntzari ez diote gutxieneko begirunerik, nahiz eta batzuei oso atsegin zaien beren alderdi politikoen izenak euskara dotorean agertzea (Nafar Demokraten Elkar-goa, Ezker Batua eta Eusko Alkartasuna), baina gero praktikan hutsune ugari dago. Eta, esan bezala, dena zergatik? Ba, nonbait preso euskaldunen argazkiak ikusteak begietako mina ematen dielako, eta aldi berean asaldatuta gelditzen direlako alderdi demokratiko direlakoetakoak. Arrazoirik ez dagoenean badakigu zer gertatu ohi den askotan, hots, indartsuénak abusatzen du eta kittol Beraz, Araiz, Etxandi eta Zabaleta *potxoloak*, badakizue, Lola Eguren


maistra andreak esan dizue hogeitaz egunerako oporraldia har dezazuen, eta horrela egin beharko duzue, bestela eskolazainari deituko dio eta horrek ostikoka eta bultzaka aterako zaituzte *ikasgelatik*, baina era demokratikoan, jakina! Gainera 20 egunez *telebistarik* gabe!

Bai, izan ere, nik uste dut Parlamentu horretako *nagusiari* aspalditik ikusten zaiola belarria bere orrazkera dotore eta ugarien artean. Ez dakit horrela den berez horrelakoa delako, edota presionatua sentitzen delako, baina dena den ez da oso koherentea PSNk hainbestetan predikatu eta predikatzen duenarekin: «Bakea eta tolerantzia».

Egia esan, nik Ezker Abertzalea taldekoak oso apal, baketsu eta otzan ikusi nituen Parlamentuan bai argazkiak jartzen eta baita ateratzen ere. Ardi mantsoak bezala atera ziren aretotik, eta hori telebista guztietan geratu da grabaturik. Hori bai, Zabaleta *ardi* otzanak, esate baterako, ateratzerakoan aprobetxatu zuen zenbait egia eta argudio *beekatzeko* Parlamentuko mahaikideen belarri sentibere-taraino irits zedin.

Hortaz, esanak esan, ematen du *istilu larri*en kontu hori oso sinesgaitza dela, eta bakea eta jasankortasunari buruz zerbait ikasi beharko lukeena Parlamentuko lehendakaria bera dela. Non utzi ote zituen Lola Eguren andreak adierazpen askatasuna eta Giza Eskubideen aldeko defentsa? Auskalo!

Egitan, Parlamentuko *ikasgela* horretan gehiago ematen du *maistra marimaistra* moduan aritu dela kasketan eta umekieratan, eta zenbait ikasgai gogotik landu beharko duela ez badu ekainean berriro ere *suspenditu* na-hi. ■



Klasiko bitxi, arrunt klasiko

Joxemiel Bidador

De re vasconica
plautoniana (eta II)

■ Dictionnaire basque, espagnol et français baten prospektua baudugu, Tolosan 1827.ean agertu zena, honezkero aipatu Mixel Abbadie eta J.F. batek izkiriaturikoa frantsesez eta españolez hurrenez hurren, Léclusek berak horren berri eman zuenarik. Juan Mateo Zabala frantzikotar bilbotarrak 1828.ean helarazi zion Bizkaiko herrietan jasotako hitz eta esaera bilduma ere ez omen zitzaion lagungarri nahikoa jazo hiztegia lehen bait lehen ager zedin, izan ere alfabetikoki ordenaturik ez baitzegoen eta, hizki xehegiaz izkiriaturik nonbait, erderazko ordainak etziren guztietan agertzen, lana zailtzeko baizik balioko zitzaiokeena. Hirugarren eskutitz honetan ere Iztueta pikotari ezarri gogo zuen, harritzekoa agitzen etzazuna, biek dantzarekiko zuten aburu kontrajarriak zirela eta bai. Gainera Léclusek bere gramatikaren hitzaurrean omenezko hitzak eskaini zizkion Iztueta, frai Bartolori jasanezina oso gertatu zitzaiona: «Según nos dice Mr. Lécluse en las páginas 6, 7 y 23, de su Gramática, ha merecido su manual basco distinguido aprecio, y repetidos aplausos del Sr. Iztueta, Autor de un tomo en 8º sobre bayles, sonos, festines (...) Así Mr. Lécluse en agradecimiento a este señalado favor le llama al Sr. Iztueta respetable sabio (...) Yo convengo que al Sr. Iztueta tratará acaso por su obra sumisos respetos aquella gente que tiene vocación para la distinguida carrera de danzantes, cómicos, y músicos».

Ber urtean Lécluseren erantzuna atera zen Tolosako Doula-doure argitaldariaen moldeetatik: Plauto políglota, o sea, hablando libremente hebreo, cántabro, céltico, irlandés, húngaro, etc.,... seguido de una respuesta a la impugnación del Manual de la lengua basca, frantses izenaren euskal ordaina litekeen Lor Urhersigarria ezizenaren azpian. Bertan karmeldarraren erasoan defentsa antolatzen zuen bereziki, eta egile nahiz argitaratzaila, hots, Madariaga eta Mogel jaunak, delako Zoilo baten barruan sartuz, astinaldi ederra eman zion frai Bartolori: «¿Cómo sin conocer la lengua francesa ha osado criticar el manual basco de M. Lécluse? (...)». Zerna ere den esan behar da Lécluse bera ere etzela arras ongi moldatzen espainierarekin, eta testu honen apailatz lanetan Iturriaga aritu zela badirudi. Halako zerbait salatu zuen Vinsonek heldu zeri urtean, 1829an hain zuzen ere, Iztuetak aurtiklari zegokionez, hau da, Donostian agertu Carta eguiten diona D. Juan Ignacio Iztuetac apez D. Juan José Mogueli, aita beacurtsu fraile S. Teresacoac Plauto euscaldunaren icena-requin izquidiatu duen obrachoaren gañean ceña argitaratu duen Moguel berac. Iztuetarena Iturriaga lagunak ondu erdal testuaren euskarazko iraulketa zatekeen besterik gabe, frai Bartolok botatakoet erantzuteko: «Cenbat eta nola engañatzen den bada aita beacurtsua! Ezagunda beraren mesedea dana araco aicebelatsquiro itcequin oiduten aietacoa, ezquillac enzun jaquin bague nun, eta nere obraren berririk guelago ez duela ez bada icena bacar bacarric debede edo fallo gogorrac bota dizquidana. Iracurri izan balitu oarrez ta artezaz Unceta beacur-garriaren eta Apez Elorza jaunaren ontzate edo aprobazloac, icusico zuen argiroqui nolaco beguiruneaz etartua izandan nere obra, non eta alta cammentarac ucatu nai ez dien bi osansi oec nere obra doangoaquin ontzat eman duten Guipuzcoatar arguidotar blai (...)». Zaldibiarren lagun mina zen Santiago Unzeta Gipuzkoako deputatuak ere bere ekarpena izan zuen zio jada nahasi honetan, eta Zuriari urte berean igorri gutun batetan honela zioen lasaigarri: «No haga V. aprecio de lo que diga Fray Bartolo porque este señor no es en mi concepto sujeto que pueda formar opinión en el bascuence, porque no tiene debido conocimiento de este idioma». Azkenik, eta txortio bitxi hau akitzeko, frai Bartolomek Anti Plauto polígloto o defensa de Plauto bascongado y de la impugnación del manual de la lengua vasca de M. Lécluse idazkia argitara eman zuen 1929.eko martxoaren 31n. Bertan beharreko arrazoiak ematen zizkien Lécluse eta Iztueta. ■



Iruñeko hiria xake torneo irekiko bederatzigarren jardunaldiko partida, 1996ko urtarrilaren 5ean jokatu.

David García (Espainia), 2.510 ELOkoa —

Rafael Alvarez (Euskal Herria), 2.445 ELOkoa:

1.d4,d5; 2.c4,c6; 3.Zc3,Zf6; 4.Zf3,e6; 5.e3,bZ-d7; 6.Dc2,Ad6; 7.Ae2,0-0; 8.0-0,b6; 9.e4,Ze4; 10.Ze4,e4; 11.De4,Ab7; 12.Af4,Zf6; 13.De3,Zg4; 14.De4,Zf6; 15.De3,Zg4; 16.Dc1,c5; 17.h3,Zf6; 18.Gd1,De7; 19.Ad6,Dd6; 20.De3.

Damaren zutabeen gatazka dagoen arren, peoiak aldatzea da onena, egitura gordetzeko.

20.....fG-d8; 21.c5,Dc5; 22.Dc5,c5; 23.Ze5,Ef8; 24.f3,Ee7; 25.Ef2,Zd7; 26.Zd3,Ed6; 27.f4,Ee7; 28.g4,Ae4; 29.Af3,Af3; 30.Ef3,h5; 31.g5,aG-b8; 32.Gd2.

Zutabe garrantzitsua kontrolatzeko egindako urratsa. 32.....g6; 33.aG-d1,dG-c8; 34.Zf2,Gc7; 35.Ze4,e5; 36.b3,f4; 37.Zc3,cG-b7; 38.Ef4,Zf8; 39.Zd5 xa,Ee8; 40.Zf6 xa,Ee7; 41.Ee5.

Partida biribiltzea baino ez da falta. Nagusitasuna nabarmena da.

41.....a5; 42.h4,Ga7; 43.gd5,Gc8; 44.Gd6,Gb8; 45.1G-d5.

Ikus koadroa. Beltzak urduri daude. 'Gc8' egin dezakete, baina gero 'Gb6' eta 'Gb5' zetozkeen.

45.....a4; 46.Gc5,b3; 47.b3.

Ezin dute peoiak jan (Zg8 eta Gc8 jokaldiengatik). Ondorioz, partida utzi zuten. Txuriek abantaila nimoñori atera zioten etekina.



Kultur aniztasuna Gotorlekuan

Kulturen Arteko Hezkuntzarako Aretoa antolatu du SOS Arrazakeria gobernuz kanpoko erakundeak

SOS Arrazakeria gobernuz kanpoko erakundeak antolatuta, Kulturen Arteko Hezkuntzarako Aretoren ekitaldia ospatu dute asteon. Astelehenean hasi eta igande honetan amaituko da. Nafarroa osoko ikastetxeetako 12 eta 15 urte bitarteko gazteak latinoamerikarren, afrikarren, arabiarren eta ijitoen kultura hobeki ezagutzeko aukera izan dute joko eta tailerren bidez.

Edurne Elizondo / Iruñea

KULTUREN ARTEKO Hezkuntzarako Aretoa Nafarroa osoko 12 eta 15 urte bitarteko haurren topaleku izan da aste osoan zehar. Joan den astelehenean jarri zuten SOS Arrazakeria gobernuz kanpoko erakundeak abian bere ekimena *Aniztasunaren aberastasuna* bizi ezazu lelopean eta igandean amaituko da. Egun hauetan guztietan —baita gaur ere— afrikarren, latinoamerikarren, arabiarren eta ijitoen kultura gertutik ezagutzeko aukera izan dute.

Nafarroako hainbat ikastetxetako haurrek ezetik, Iruñeko Gotorlekuko Armen aretoa hurbildu den edonori ere zabaldu dio SOS Arrazakeria erakundeak bertan bildutako guztiaz gozatze-ko aukera.

Kultura ezberdinak leku berean batzea ez da lan erraza baina Neli Ortiz arkitekto kolonbiarrak lortu du. Gotorlekuko Armen aretoa izan du lagun, «leku aproposa» baita bere ustez. Armen aretoko espazioa «era berezian» antolatu du Neli Ortizek, bere hitzak erabiliz. Ibilbidea, beraz, bertikala da.

Horretarako aretoaren ezkerrean eta eskuinaldean daudden eskailerak erabili ditu. Eskuinaldeko bidea hartuz gero, arabiar kultura topatzen du lehenik bisitariak lehen solairuan eta bertan, kaligrafia tailerra, eztabaidarako lekua eta dantzarako tokia. Arabiar etxe arruntaren banaketa errepikatu du Neli Ortiz arkitektoak lehen solairu honetan eta bertan bildu dituen arku, mosaiko eta abarrek ere arabiar mundua gogoratzen dute.

Bigarren solairuak Afrikako kultura du oinarri. Txirikordak egiten ikasi, Afrikako eguneroko bizitzari buruz eta bertako ohiturei buruz eztabaidatu, musika tresnak egin edota horiek jotzen ikasi, denetarik egin dezakete bertan haur eta helduek. Etxe afrikarren isla ere nabarmena da Neli Ortizek egindako lan honetan.

Ezkerreko eskailerak ijitoen eta latinoamerikarren kulturara hurbiltzen ditu tailerretako partaideak. Ijitoak daude lehen solairuan. Txalo eta takoneo tailerreko kideak kantuan eta dantzaz ari dira, ijitoen ohiko auzo



Afrikarren txirikordak egiten ikasi dute Gotorlekuan izan diren gazteak.

JOXE LACALLE



Latinoamerikar kulturari eskainitako txokoa Kubari buruz mintzatzeko aukera izan zuten ikasleek.

JOXE LACALLE

«Proiektu interesgarria»

LEKAROKO Institutuko gazteak Berako Jesusen Bihotza ikastetxeko haurrekin batera izan ziren Armen aretoan joan den astelehenean, eta bertan eman zigun Angel Gamarra Lekoroako orientatzaileak SOS Arrazakeriaren proiektuari buruz duen iritzia. «Oso interesgarria da. Institutuan hainbat eduki, hainbat jarrera eta hainbat prozedura ari gara lantzen, eta halakoak, hemen ikasi ditugunak, bazterrean

uzten ditugu».

Ez da aurtengoa Lekaroko ikasleak SOS Arrazakeriak antolatutako aretoa etortzen diren lehen aldia. Iaz ere, estreinako egin zenean, Iruñean izan ziren. Iaz Planetarioan izan ziren tailerrak.

Antolatzaileak aurreko aukeraturako lekuarekin pozik dira. Ezberdintasuna, antza, arratsaldetan jende ororentzat egin izan dituzten ekitaldietan nabaritu dute. «Planetarioa leku txikia da eta ez du jendea era-

kartzeko gaitasunik. Oso jende gutxi izan zen iaz arratsaldeetan. Aurrean, berriz, astelehenean adibidez, nahiz eta oso eguraldi txarra egin, 200 lagun bildu ziren Armen aretoan».

Publiko zabalarentzat prestatutako ekitaldiak, beraz, arratsaldean egin dituzte, arratsaldeko seiak eta bederatziak bitartean. Egunero kultura baten eguna ospatu dute. Gaurkoa, azkena, arabiar kulturaren eguna izan da.

Bihar, goizeko ha-

mabiak eta ordu biak bitartean, Armen aretoan prestatutakoa bisitatzeko aukera izan dute iruindarrek. Eguerdian ere *El baillecito* antzerki obra taularatuko du TEN-Pinpinpauza taldeak. Arratsaldean kulturen arteko kontzertua izanen da, arratsaldeko seiak eta zortziak arte. Talde latinoamerikarrek eta afrikarrek hartuko dute parte, baita ijitoek ere. Igandean ere aretoa bisitatu ahal izanen da.

bateko etxeen aurrean, merkaturako barazki eta fruituen ondoan. Alboan, ijitoen ohiturei buruz hitz egiten ari dira beste batzuk eta gainontzekoak saskiak egiten ikasten.

Bigarren solairuan, azkenik, palmerek Latinoamerikako herrien eta paisaien oroitzenak pizten dituzte. Gainontzekoetan bezala, mintzatzeko txokoa hurrez beterik dago. Kubari buruz ari dira, bertako bizimodua, bertako gazteak buruz. Ez daude, baina, esku hutsik, matea edan eta esne gozoa jaten ari baitira. Hauen ondoan zeramikazko eskulanak egiten dituzte beste batzuk eta, azkenik, edozein herriko plaza islatu nahi duen txokoa, salsa eta merenguea dantzatzeko ikasten ari dira gainontzekoak.

Ikasturte osorako proiektua

Gaurkoekin batera, mila ikasle inguru izan da aste osoan zehar Gotorlekuko Armen aretoan. Berekin harremanetan jartzeko Nafarroa osoko ikastetxeetara bidali zituzten gutunak SOS Arrazakeria taldeko kideek, proiektuaren edukiak azalduz. Erantzuna bidali zuten artean aukeraketa egin zuten ondoren. «Argi genuen hona etorriko ziren ikastetxeek gaia urte osoan zehar jorratzeko asmoa izan behar zutela», azpimarratzen du SOS Arrazakeria taldeko kide den Maria Jose Perez Jarautak.

Ikastetxe bakoitzeko haurrak lau taldeetan banatu dituzte eta bakoitzak kultura bat landu du. Norberak kultura bat edo beste hautatzeko, bakoitzean agurtzeko duten modua eta musika ezagutu izan ahal dute ikasleek aste hau hasi baino lehen. Azken lau asteetan, hain zuzen, kultur ezberdinak jorratu dituzte ikastetxe bakoitzean. Agurtzeko modu ezberdinak ikasi eta bat aukeratu dute: arabiarren *salam alaikun*, ijitoen *sastipen tali*, afrikarren *jambo* edo latinoamerikarren *¿qué tal compadre, qué tal comadre?*.

Datorren astean, berriz, bakoitzak bere ikastetxean, aste osoan egindakoa aztertuko dute ikasleek. «Euren jakinmina piztu nahi izan dugu», azaltzen du Maria Jose Perez Jarautak.

Egunero goizeko bederatzieta hasi dira lanean Armen aretoan bildutako gazteak. Bederatziak eta bederatzi eta erdiak bitartean, jokoan bidez landu dituzte kultura bakoitzeko berezitasunak, zonalde guztietara bisita egin ondoren. Bederatzi eta erdiak eta ordu bata bitartean, berriz, tailerrak egin dituzte eta ondoren, ordu bata eta erdiak arte, jaialdia.

Jaialdirako beheko solairua apaindu du Neli Ortizek, festetako paperekin hain zuzen. Erdian, berriz, Mexikoko jaietan erabiltzen dituzten piñatetako bat jarri du. «Mexikon kolonizazioaren garaian ebanjelizatze erabiltzen zituzten apezek. Piñatak gaizkia islatzen du eta hori apurtu egin behar da, izpiritu ezkorak uxatzeko», azaltzen du kolonbiarrak. X.

* ◆ Xole Aire ◆ Basaizeako kidea

«Odol berri baten beharra zegoen»

Bihar hasiko da Baigorriko Kultur Astea. Maiatzaren 4ra bitartean ekitaldi anitz antolatu ditu Basaizeak Baigorriko kultur taldeak. Kultur Aste honen barruan Nafarroaren Eguna ospatuko da Baigorriin, urtero bezala. Basaizeako kide den Xole Airerekin izan gara Kultur Asteari buruz erraiteko duena entzuteko.

Lutxi Fourcade / Baiona

Baigorriin dena prest dago bihar Kultur Astearen ekitaldi berri bat hasteko. Joan den ostegunean aurkeztu zuten egitaraua Iruñean Basaizeako kideek Iparla elkartearen. Gehiago jakiteko Xole Airerengana jo dugu.

■ Nola giroan iraganen da aurtengo Baigorriko Kultur astea?

Gazte giroan. Administrazio Kontseiluan gazte andana sartu baikara eta gure gain hartu baitugu kultur aste osoa; gauzak arrunt goxoki iragaten dira, egiazko gazte giroan. Ni jadanik Basaizea taldean sartua nintzen aitzineko urteetan, baina gazte bakarria nintzen. Geroztik sartu dira ene lagun batzuk eta orain bagara hamar bat ene adintsukoak. Anaia eta ni urepeldarrak, baita beste bat Bankakoa, eta beste guztiak baigorriarrak dira.

■ Denak euskaldunak zarete eta euskaraz mintzo zarete?

Bai, bistan da. Hastapenean hori izan da pixka bat problema, besteak ez baitziren beti menturatzin euskaraz aritzea, nahiz eta denek konprenitu. Anaia eta ni eta bankar hura euskaraz ari gara beti, eta orduan gurekin beti euskaraz ari dira. Euskaraz mintzatzeari izugarri atxikiak gara, beti egin ahala euskaraz aritzeko, bilturik besta eta toki guztietan. Jelen urtean, osatzen dugun gazte taldea bildu ginen AEK-k antolatzen zuen mintza- praktika kurtsoan eta biziki aberatsa izan

da, euskaraz mintzatzeko erraztasuna emateko eta, aldi berean, elkar hobeki ezagutzeko. Erran behar da gehienak inplikatuak garela kultur talde batean.

■ Nola pasatu da Basaizearen lekukoaren pasatzea eta zer erran dute zaharrek?

Iritsi ginenean problema batzuk izan ziren zaharren artean, eta batzuk lekutu ziren. Laburki erraiteko, sendi zen odol berri baten beharra bazela eta ohartu ginen guri zegokigula sartzea, geure gain animazioak hartzea. Gaur, segur naiz kontent direla, ez baitziren batere segur segida izanen zela eta Basaizeak geroa bazuela.

■ Zaharrek pozik eta horretarako segitu zuten dudarik gabe?


Bai eta beharrik hor dira gu gidatzeko! Gu hain segur ez genezake gauza handirik egin. Kultur asteko egitaraua gauza bat da, baina gero, eman dezagun Nafarroaren Eguna antolatzeko, bada kristoren lana eta kristoren antolaketa. Bakarrik ez genezake egin eta haien esperientzia edo usaia paregabekoa izan da.

■ Baina programari dagokionez, ez da gaztetasunaren marka berezirik agertzen?

Egia da guk ere hori senditu dugula. Programa ikusi dugunean, zinez kultur asteko programa beste urteetan bezalakoa zela pentsatu dugu. Heldu den urtean gauza berriak sortu beharko ditugu, gazteek geure gain hartuko ditugu. Nahi genuke gaztetasunaren marka erakutsi programa berezia sortuz. Iduritzen zait ohitura antzeko batean sartu garela, eta behin baino gehiagotan kultur astea antolatua izan da egin behar baitzen. Aurtun, zinez gazte taldea indartsua eta motibatua osatu dugu eta aspaldiko partez gogotik antolatu dugu aste hori. Erakutsi nahi genuke Baigorriin bizitzen ahal dela, dudarik gabe, eta heldu diren urteetako lehen pausoak definitu.

■ Aurtengo berezitasunetan zer azpimarratu nahi zenuke?

«Nahi genuke gaztetasunaren marka erakutsi programa berezi bat sortuz»



Basaizeako kide da Xole Aire.

JOXE LACALLE

Ostiral arratseko kulturari buruzko mintzaldia, hori anitz landu baitugu. Guretzat inportantea zen erranahi baten emaitza kultura hitz horri, ohartu baikara erranahi desberdinak dituela jendeen arabera. Zer den kultura: gure nortasuna finkatzen duen bizimolde bat edo igandeetako ikusgarri bat edo ekonomia bultzatzaile bat. Horretaz mintzatzeko gonbidatu ditugu laborariak, lantegi arduradunak, elkarte animatzaileak eta abar. Kultur arloko militanteak ere izanen dira, noski.

■ Pentsatzen ahal zen gazteek arrangura handiagoak zituztela ekonomiari begira, formakuntza, lana?

Basaizea elkarte kulturala izanez, behar genituen zuzen gure mugak atzemaitea, jakiteko zertan sartzen garen eta zeri buruz joaten garen. Horrelako eztabaida interesgarria da geroari bu-

ruzko etapak finkatzeko, Basaizearen erranahiaren atzemaiteko denbora berean, gure tokia finkatzeko Baigorriko haranean.

■ Hamalagarren kultur astea da; lehena antolatu zenean haurrak zineten gehienak. Nola bizi izan dituzue aurrekoek antolatu zituztenak?

Nik xantza bat izan dut, zeren aita-amekin urtero joaten nintzen ttipi- ttipitik Nafarroaren Egunerara. Aspalditik ezagutzen dut, nahiz eta ez zuzen konprenitzen zer zen. Banekien euskaldunen besta zela, euskararen bultzatzeko, kulturaren aldeko besta. Ene lagunak, aldiz, berriki ohartu dira zer zen Basaizea, eta gaitzeko urratsa egin dute elkartean sartuz. Basaizea ezagutu dute bakarrik lanean ari izanez Nafarroaren Egunean, eta orain elkarteko kideak izanen dira.

■ Nafarroa hitzak erranahi berezia dauka zuretzat?

soslai

Xole Aire Xalbador orain dela hogetta bi urte jaio zen Urepelen. Gaur egun ikastolako andereñoa da, beraz, haurrekin egiten du lan. Lanak kentzen ez dizkion orduak Basaizea elkarte-ko kideekin batera ematen ditu urtean zehar hamaika ekitaldi antolatzen.

Erraiten duenez, urteak daramatza Basaizean sartua baina orain gutxi arte bera izan da gazte bakarria. Orain bere adintsuko diren beste hamar bat edo badirela azpimarratu du. Gazteek hartu dute elkartean zaharren lekukoa.

Kultur munduan lan egiteko zaletasuna ez da bakarrik berea bere familian. Anaia ere Basaizeako kide da, eta osaba Xalbador bertso-lari ezaguna da.

Arduraz joaten gara Nafarroa hegoaldera, eta ez da dudarik, ez dugu huts egiten Baztandarren Biltzarra edo horrelako hitzordurik. Baina euskaltasunak garrantzi handiago dauka enetzat. Erran behar da nahiz eta ardura han izan, besta harremanak baik ez ditugula. Ez dugu sekulan lan bereziak egin hango elkarrekin eta gure proiektuetan sartzen dugu helburu hori. Nahi genuke kultur aste horretarik atera eta animazioak hedatu urte osoan. Jadanik hilabeteen behin kontzertua antolatzen dugu jendea biltzeko, jendeak usaia har dezan Bixenteniara jiteko. Alabaina, hastapenean gure artean azkartu nahi dugu. Azkartuta bakarrik hango elkarte batzuekin harremanetan sartu nahi genuke, Baztandarren Biltzarra antolatzen dutenekin adibidez, egun batez lan bateratua sortzeko esperantzarekin. x

P A N E
LUCRANDO

ZALDI EROA



Han goian goizeko izarraren diridira.
Orain, balentia, ez zaitzala inork ikus!

Zoaz, maita, ene aholkuarekin.
Zer gauza on den amodio sekretuz..

..Adiskidetasunak ezkutuaz gordetzen bado!
Lo! Bizen! EH!!

